

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

25/2022 Mozioa, martxoaren 16koa, Ukrainako inbasioaz eta larrialdi humanitarioko egoerari eman beharreko erantzunaz

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko martxoaren 16an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

25/2022 Mozioa, martxoaren 16koa, Ukrainako inbasioaz eta larrialdi humanitarioko egoerari eman beharreko erantzunaz.

1. Arabako Batzar Nagusiek ezbairik gabe gaitzesten dute Vladimir Putinek Ukraina inbaditu izana, gerra hotzaz geroztik jazotako gatazkarik larriena baita. Halaber, beren babes osoa adierazten diete Europako Batasunak eta haren estatu kideek eraso hori dela-eta hartutako ekimen eta ekintza guztiei, hain zuzen ere eraso horrek arriskuan jartzen dituelako Europako batasunaren egonkortasuna, nazioarteko ordena eta bakea.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote gainerako instituzioekin, lankidetzako GKEekin eta bestelako gizarte-erakundeekin lanean jardun dezala, Vladimir Putinen inbasioa Ukrainako herritarrengan eragiten ari den larrialdi humanitarioko egoerari erantzun bat emateko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala Larrialdietako Arabako Funtsaren (LAF) alde egiten, edozein larrialdi-egoerari aurre egiteko tresna bizkor eta azkarra baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 16a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA